

Arrainak egarriz hiltzen direnean

Deia, 1983-06-28.

Nik Venezuelan idatzitako liburu batek izenburu hau darama: *"Cuando los peces mueren de sed"*.

Tropikoan ikusi nuen ikuskari triste batek eraginda idatzi nuen gero liburu osoari izena emango zion erreportaia. Venezuelako ekialdean ba da hamartaka, hogeitaka, kilometroko hondartzarik, eta hondartza horietan itsaspadurak, albuferak, oso erraz formatzen dira, hondartza beherak direlako; Espainiako Valencia eta Mallorkakoetan gertatzen den legez; haietan, eta bero handien eta euriteen eraginez, fenomeno berak handitzen ditu uholdeak eta agorraldiak, eta berez itsaspadura euriteaz puztu eta gesatzen den bezala, lehorte berriak agortzen du berehala, eta gatzarenak bere prozesuan jarraitzen du kupirarik gabe ur berrietan ugaritu ziren arrainak bizitzeko behar duten urik gabe geratu arte.

Honela, ikusi ditut arrainak, milaka, ur faltaz itomen tristeluze-larrian.

Gaur gai hau bera, prozesua berdina ez bada ere, Espainiako egunkarietan aipatzen da Extremadurako gertakari hunkigarria dela kausa.

"Lehorteak behartuta –dio izenburuak– arrain biziak ari dira lurperatzen Caceresen". Eta hara gertatua: "Oraindik bizirik dauden arrainak ari dira lurperatzen Valdesalor inguruko urtegia, pantanoan. Presa ondoan geratzen den ur piska ez da nahikoa urtegia ugariro bizi zen arraina bizirik iraun arazteko. ICONA-k, arrainen hilaldi eta honen ondorioz usteltze eta uraren kutsadura ebitatzeko eta arrain moeta batzu hiltzen hasiak direlako ikusiaz gero, ahaleginetan arrainak uretik ateratzen hasi dira. Valdesalor-eko urtegia Caceres-tik Hegoaldera hamabost kilometrora dago, eta urtetan hiri hontako ibai-hondartza izan da. Ba da bi urte horietan inor bainatu ez dela, urak oso behe bai daude. Hemen bizi ziren arrain moeta ugarienak, karpa, penka, barboa, "pardilla eta carpin" ziren.

Noraino ari da gizona eman zaion natura degradatzen!

Trebea dela erakutsi du gizakiak zientzia arloetako hainbat aurrerapen lortzen, eta baita oso kamuts eta dorpea dela gizarteko elkar bizitzarako eta baita naturako aberastasunak zaintzeko eta gehitzeko lanetan ere; badirudi, eman zaion guztia gastatzeko, alferrikaltzeko eta agortzeko lehiaketan sartua dela.

Urruneko misterioak argitzekoan hobeto ari da, gizonaren baitako beraz eta beste hurbilekoak konpontzekoan baino; eta lastima da, lur-azalekoak bonbaz suntzitzuz gero ez baita ilargirako bidaia sonatuak egiteko gizonik geratuko.